


**JOSE DEUNA'REN**

**BEDERATZI - URUNA**



Izurategi'tar Jon

ATV  
18339

1921



M-8570  
R-36235

JAUNGOIKO - ZALE'REN IDAZTIJAK

# JOSE DEUNA'REN

Bederatzi - uruna



**Izuarategi'taf Jon**

*Eloñjo'ko txauburuak egiña.*

1921

JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLEAN

Zofnotza. — (Bizkaya)

Victoriae 19 Aprilis 1920

Nihil obstat

*Dr. Petrus de Menchaca*

*Censor*

Imprimatur

*Victoriae 19 Aprilis 1920*

*Çubr. Eccus.*

*Dr. Joseph Leontius O. de Tárata*



JOSE DEUNA

ERIJOTZ - ALDIAN ZAINDU GAIUZ





# Jose deunaren bederatzi - uruna

*Neure Jesukristo Jauna...*

## EGUNEROKO OTOITZA

¡O Jose zoruntsua! Mariaren senar deuna, Jesukristo'ren aita ordeko ardura-tsua, Elexiaren zaindaria, eta zure oner-aspengan bizi dirianen laguntzale benetakua; zure aurian belaunbikoturik eta apaltasunik andijenagaz eskatuten deutzugu, jaritxi dagiguzula Jaungoikoagandik eskaña (grazija) zeure onoimen miragañijak eta onbide goragañijak gogoratu, ezagutu eta alegiñez geugandu daiguzan, eurakaz geure goguak (arimak) ornidurik, bizitza onian iraun eta eriotza on bat euki daigun.

Zuk dakizu, zelakuak dirian gure gogua-aren premiñak, eta ze eragozpenak dauken lotuta onoimeneko bidian, zelako

areriyo gaiztuak inguratuten daben, zelako griñak azpiratu nai daben, eta benturaz, zelako obenak, Jaungoikuagandik urinduta dauken. ¿Nogana eldu geintekez bada laguntasun bila zugana ez izanik? Zure ardurapian ipiñi eban Jaunak bere Seme bakañ ta maitia eta zure eskuan ipiñi dauz ondasuntegi andijak. Egiñ ba, Jose deuna, baliau dagigula zure bitartekotasun altsuak; entzun, Jose zorientzua, gure eskarijak, eta jaretxi egiguzu zeure besartian daukazun ume Jaungoikozko oregandik bikañ dogun guztia, batez bere, bederatzi urun onetan eskatuten deutzuguna, zure goraldi eta gure goguaren onerako bada.

## LENENGO EGUNEKO

### GOGARTIA

**Jose deunaganako oneraspenak izan bikañ dau egijazkuak**

Oneraspenna diño jakitun batek dala maitasuna; maitasuna, egijazkua izango bada, agertu bikañ da egintzakaz, eta ez itz utsakaz; egijaz maite daunak, egiten



dauz maitiagaitik neke andiko gauzak, eta zintzotasunik andijenagaz aleginduten da maitiaren naya egiten; geyago oraindiño, maitasunak garuaz maitiagaz iruditutera, maitiagaz bat egitera.

Beraz oneraspena maitasuna bada, Jose deunaganako maitasunak eruango gauz bere gogoko dirian gauzak egitera, eta bere antzeko egitera. Ona da Jose deunari otoitzak egitia, bere domiñak samatik eskeita erabiltia, bere irudijak loraz apaindutia, eta argi mordo andijakaz inguraturia, baña ez dago onetan egijazko oneraspena.

Egijazko oneraspena dago bere onoi-menak (birtutiak) jañaitutian eta bere antzekua izatian; onetarako egunaz ta gabaz, ordu guztietan eta beti euki biar gendukez geure begijen auñian bere onoimenak eta onbide goragarriak eta alegindu eurakaz geure gogua eta biotza orniduten. Guraso baten atsegiña eta poza izan oi da ikustia seme edo alabiak daukala bere antza edo irudija arpegijan, bada emendik ezagututen da bere odoletikua eta bere izatiaren zatija dala, bardiñ Jose

zoriontsua poztuko da, ikusten badauz gure goguak bere onoimenakaz orniduta, eta bere antzeko eginda.


¿Zelakua izan da gaur arte beragana-ko zure oneraspena?

*Gogoratu apurtxu baten eta eskatu berari gura dan eskaña (graziya).*

*Iru Aita guria, agur Marija eta gloria.*

## AZKENENGO OTOITZA

¡O Jose Aitalen zoriontsua! auferuntzian ospatu eta goretsi gura zaitugu, ez itz utsakaz, zeure gogoko dirian egintzakaz baño, eta zure bizitzako egintza guztijak ain jañagañijak dirian ezkerro, egizu gaurtik, gure egite guztijak izan daitezala zeurien antzekuak. Jaritxi, Jose deuna, Jaunagandik, gure asmo eta erabagi au oso osuan eta azkeneragiño eruateko biar dogun laguntasuna eta eskaña.



## BIGAREN EGUNEKO

### GOGARTIA

**Jose deuna ziñismenaren eredia.** (modelo)

Ziñismena da, Jaungoikuak duarik emon dauskun onoimena, bere bidez ezagututen doguz, Jaungoikua ta donokiko gauzak, baita bere geure jatorija, geure azkena eta ludi onetan daukagun zeregiña, zein ez da besterik, Jaungoikua ezagutu, guñtu, maitatu, eta bere naya egin edo betetia baño.

Ziñismen bage, ezin bete giñai Jaungoikuaren naya, ez eta egiñ donokirako duiñ dan gauzarik; bañiz ziñismen bizijagaz egiten doguna, Jaungoikuaren gogokua da, eta donokijaren duiña. Pablo belduak diño, justuaren bizitza dala ziñismena, beragaz argituta, gauza guztijak zuzenduten dauzalako donokira, betiko zoriontasuna irabaztera.

Jose deuna ziñismen andiko gizona zan, Jaungoikuak bere auñetiko asabai egindako agintzak zeatz beteko zirala sendoro

ziñistuten eban; Jaungoikua beti begien aúrían eukalako, egunaz eta gabaz, goxian eta arátsaldian, jasoten eban biotza beragana eta guítuten eban bere Egílea lez, eskeñak emoten eutsazan bere ongi-leari lez, eta otoi samur eta bero beroak egiten eutsazan, emon egijon laguntasuna bere bidetan artez eta zintzotasun guztijan ibilteko.

Eta gure ziñismena ¿zelakua da? Goxian jagieran eta gabaz oerakuan, gogoratuten gara Jaungoikuagaz, Bera guítuteko, berari otoi egiteko, arturiko mesediak-gaitik berari eskeñak emoteko? ¿Bakarik gagozarian egiten doguz gauza gustiak, Jaungoikuaren aúrían bagengoz lez?

*Gogoratu apurtxu baten eta eskatu gura dan mesedia.*

*Iru Aita guria...*

## AZKENENGO OTOITZA

¡O Jose! zeure ziñismen bizijagaitik Jaungoikua beti goguan zeunkana eta Berari bakarik begiratuta gauza guztijak, ain ondo, eta zuzen egin zenduzana; zuk

dakizu, zein epela dan gure ziñismena eta beraugaitik zein otzak eta ilak gure egite gustijak; geitu eta sendatu egizu gure bi-jotzetan onoimen eder au, beragaz argitu-ta Jauna begijen aurian erabili daigun eta beragaz indartuta, gauza guztijak zeure antzera egin daiguzan, onan egiñik lortu daigun or goyan daukazun betiko zori-jona.

## IRUGAREN EGUNEKO

### GOGARTIA

#### **Jose deuna apaltasunaren eredua**

Apaltasuna biar biareko onoimena da; bere bidez ezagututen dogu, geurez ezer-bere ez gariala, eta garian eta daukagun guztija Jaunak emona dala; geyago orain-diño, Bere eskar edo grazija baga, zeru-rako arazuetan eziñ geinkiala ezerbere egin. Au beti goguan badogu, izango gara apal apalak, eta ez gara iñoz bere aro-tuko. Bijotzez apala dan gizasemeak bere burua gitxitzak dauko, eta andiuste, ospe eta goraldijetatik iges egiten dau,

eta zeregiñik zakañ eta berenengoak be pozik egiten dauz. Biotzez apala danak, jakiturija, aberastasunak eta aginpide andiak euki añen, Jaunagandik artu dauzala dakijalako, ez da arotuten.

Jose deuna apal apala izan zan, bai bere gogaketetan eta baita bere egite guztijetan be. Jaungoikuak aberastu eban diñidaderik andijenaz bada egiñ eban bere seme bakañaren aita ordeko luñian eta Andra Mariaren senañ, eta ez zan augaitik arotu, beti bere burua txiki eta ezereztzat esten eban. ¡Zenbat bidar bere begijak gorantz jasorik esaten eban *O Domine ego servus tuus sum*, ni, Jauna, zeure serbitzari edo otseña naz! Eñegen odoletik edo jatoritik etoñiañen, ez jakon bere burua aixetu ez puztu, ezpada bizi izan zan apaltasunik andijenian eta arotzijako langiletasunian.

Eta guk ¿ze antz daukagu onoimen onetan Jose deunagaz? orain artian alegindu gara geure bijotzak apaltasunez orniduten? ¿zer egin daikegu auñeruntzian?

*Gogoratu apurtxu baten eta eskatugura dan mesedia.*

*Iru Aita guria...*

## AZKENENGO OTOITZA

¡O Jose! Jaunaren begijetan ain andija eta zeure eretxiz iñor baño txikijago izan ziñana, geure eredu eta jañabide izan zaxiguz, geure eretxi, gurari eta egite gus-tijetan apal apalak izan gaitezán, onan izanik emen luñian, lortu daigun an goyan Jaungoikuak apalai eskiñiriko sarija.

## LAUGAREN EGUNEKO

### GOGARTIA

#### **Jose deuna menpetasun edo esagintza eredua**

Loratik igali edo frutua sortuten dan lez, menpetasun, esagintza edo obedi-entzia, apaltasunetik sortuten da. Iru erata-ko menpetasun edo esagintza dagoz 1.<sup>o</sup> Nagusijen esana indañez eta zigoñaren bildañez egiten dauena; 2.<sup>a</sup> Nagusijen esa-na egiten dauena, baña bakañik eurakaz-kua eukitiañen edo eñezago mesederen bat jaristiañen; 3.<sup>a</sup> Nagusijen esana egiten dauena bizkor, gogoz eta pozik Jaungoi-

kuaren esana balitz lez eta Jaungoikuari bakañik begiratuta. Lenengo bijak ez dira menpetasun zintzo eta egijazkuak, irudikuak, azalekuak eta guzuzekuak baño. Irugañena da egijazko menpetasuna; bijotzetikua, baru barukua, Jaungoikuaren gogokua eta gizonaren duiña dalako, ta beragaz egiten dan guztijak dauko Jaungoikuaren begijetan irabazte andija.

Onakoxe menpetasuna agertu eban Jose deunak gauza guztijetan; beti izan zan esanekua, alan Jaungoikuaren zein da nagusijen aginduai. Jaungoikuaren agindua betetiñen, egiten ebazan urtero, bide luze, gatx eta neketsuak Jerusalenera jua-teko, eta ango txadon edo elexan gurturen eban Jaungoikua eta egiten ebazan otoitz samur, bigun eta bero beroak. Aingeruaren esana betetiñen jagi zan gaberdijan, eta artu eban Egiptorako bidia, bide ez yakiñetatik. Agintarijen esana egitiñen, joan zan Nazaret'etik Belen'era, iru eguneko bide luzetan eta negu gogofaren erdijan.

Eta guk ezelan betetan doguz Jaungoi-



kuaren, nagusijen eta gurasuen esanak?  
apaltasunagaz, ariñ, bizkoí eta gogoz?  
ala nagi, mukeí eta gogo txarez?

*Gogoratu apurtxu baten eta eskatu  
gura dan mesedia.*

*Iru Aita guria...*

## AZKENENGO OTOITZA

¡O Jose menpetasuneko eredu eder eta osoena! gure adimen iluna goiko argiz argitu egiguzu, menpetasunaren irabazi andiak ezagutu daiguzan, Jaungoikuaren aginduak eta bere ordeko dirian gure nagusijenak zintzoro egiñ eta bete dagiguzan, alan egiñik lortu daigun Jaungoikuak esanekuai eskiñirik daukan sarija donokijan.

## BOSGAREN EGUNEKO

### GOGARTIA

**Jose deuna, eroapenaren eredua**

Ludi onetan, kalte, ezbiaí eta zorigatx askok ikutu eta miñ emon leikegu, eta zoritxaí onek, gure gogoa laíregi laíritu eta

eratsi ez daigun, berarizko onoimena bear dogu, eta au da eroapena. Eroapenak lau mala daukoz: 1.<sup>a</sup> Bizitza onetako ezbear eta zorigatxak artegatu barik igarotia, 2.<sup>a</sup> ezbear eta zorigatxak gogoz artutia, 3.<sup>a</sup> ezbear eta zoritxañak, alaitasunez eta pozez eroatia eta 4.<sup>a</sup> geure arimiaren onerako bialtzen daukuzan Jaungoikuari eskerak emotia. Eroapena da geyen biar dogun onoimena, bada negarezko erbeste onetan, alde guztijetan zerbait jasan edo igaro biar izango dogu eta eroapenagaz ezpadaruaguz, askozaz aztunago, gatxago eta saminkoñago egingo yakuz.

Jose deunak eroapenaren ikasbiderik ederrenak emon euskuzan. Belen'era joan zanian, bere emazte deuna seña egiteko eguan egunetan, senidiak eta aizkidiak ez ezagun egiñ jakozan, ostararijak ate guztijak itxi eutsezan, abeletxe baten gau otza igaro biar izan eban, eta ez eban murtik egiñ; ikusi zan janari, edari eta estalkirik baga, eta isilian eroian guztija, donestuten ebala Jaungoikuaren eskua, alan gura ebalako jazo zediñ dana; bere

bizitzako ezbiař eta estu-aldijetan, bardiñ agertu eban eroapenik andijena; bere aotik ez eban iñoz urten ez itz. aztunik, ez gařatsik, ez artegatasuna agertu leikianik.


Eta guk ħzelan daruaguz noxian bein daukaguzan ezbiař eta zoritxařak? ħzelan daruaguz Jaungoikuak bialtzen dauskuzan kurutziak?

*Gogoratu apurtxu baten eta eskatugura dogun mesedia.*

*Iru Aita guria...*

## AZKENENGO OTOITZA

¡O Jose eroapenaren eredu bardinbagea! lagun zakiguz goi alde ofetatik; zeurre antzera, gure ezbiař eta zoritxař guztijak beti gogoz, pozik eta Jaungoikuaren izenian eruan dagiguzan, bada geure indař utsakaz ezin daikeguz; zure laguntzaz bařiz, ondo baño obeto eruan al izango doguz.



## SEIGAREN EGUNEKO

### GOGARTIA

#### **Jose deuna langileen eredu bizi bizija**

Paradisuko ondamendijaren ostian, Jaungoikuak eripetu (kondenau) eban gizona lana egitera: *in sudore vultus tui vesceris panem*, zeure bekokiko izerdijagaz, zirautsan Jaungoikuak gizonari, irabaziko dozu egunian egunian biar dozun ogija: lenengotan luñak duarik emoten eutsan gizonari bizitzarako biar eban janarija, edarija ta jantzija, baña oben ostian lanagaz, izerdijagaz eta neke andijen bidez atera biar dautso luñian bizitzarako biar dabena. Jesukristok, bere eriotza doneagaz gizona jaso eta bañiztau ebanian jaso eta bañiztau eban baita be lana, biala, biurturik len nekia eta zigortia lezana, bere aintza, poza eta ogasuna izatera.

Lanak ez dau gizona beratu edo txiki egiten, jaso eta duindu baño; Jesukristok lana egiñagaz Nazaret'eko lantegijan, donetu eban langiletasuna. Maria bere amak

lanari oratu eutsan gaztetatik, eta lanian bizi izan zan; Jose bere senar deunak ez eutsan lanari inoz bere itxi, eta izan zan langiletasunaren eredu oso osua; lana egin eban ogija irabazteko, lana Jesus eta Maria janarituteko eta janzteko, lana bizi-tzako premiña guztijai erantzuteko eta lana egin eban nagitasun barik pozik, gogoz eta bizi-ero, egunero eta urtero, ez izanik jai egunetan. Jose deunak begiratuten eutsan lanari, Jaungoikuak gizonari ipiñi eutsan legiari lez, eta auxegaitik, ekijalako Jaungoikuaren naya egiten ebala, poz pozik oratuten eutsan lanari, begiratu baga ariña, astuna edo neketsua zan edo ez. Nazaret'eko lantegi zoruntsuak esan lei zenbat neke, zenbat indar eta zenbat izerdi isuri eban Jose deunak leku baka, ixil eta zorijoneko atan.

Eta guk ¿zelan begiratuten dautsogu lanari? maitetasunez ala gofotoz? pozik ala iguinez? lana egiten dogu gogoz ala derigoñian edo gogo txarez?

*Gogoratu apurtxu baten eta eskatu gura dan mesedia.*

*Iru Aita guria...*

## AZKENENGO OTOITZA

¡O Jose langilen eredu bizi bizija, eta langilen zaindari arduratsua! erukitu zaitetz gaurko langileakaz; zuzentzaile eta aizkide guzuzekkuak, bide okefetatik eta oporketa gaiztuetatik, euren galdumendira eruan gura dabez; argitu euren adiñak ezagutu dagijen lanian eta zintzotasunian daguala euren zorijontasuna erbeste onetan; zeure antzera bijotza donokira jasota, lana egiñ dagijen gogoz, pozik eta atsegiñez, lortu dagijen gero, langile zintzuai eskiñiriko sarija.

## ZAZPIGAREN EGUNEKO

### GOGARTIA

#### **Jose deuna gazterijaren eredua**

Gazterijak zer ikasi asko dauko Jose deunagan. Jose deunak bere gaztetasuna Jaungoikuaren maitasunian eta otseintzan, eruan eban. Adiña argitu jakoneko, ezagutu eban bere izatia, bizija, eukija, eta zan guztija, Jaungoikuarena zala, eta

emon eutsola, bera otseinduteko (serbiduteko) eta onetara zuzendu ebazan, bere indaí eta alegin gustijak. Jaungoikuaren legia gordetan eban bijotzaren erdijan, eta beragaz egunero gogoratuten zalako, egin ebazan auíerabide andijak onoimen guztijetan; lege onegaz neurtuten ebazan bere egitáda guztijak, eta beti zirian ondo eginak eta Jaungoikuaren gogokuak; lege au leýaltasunik andijenagaz gorde ebalako, izan zan apala, esanekua, garbija, biguna, otzana eta eroapen andikua; ebanjelijo deunak diñuanez justua, birtute edo onoimen guztijakaz ornidua; *Joseph autem cum esset justus.*

Gaurko gazterijak ze antz dauko Jose deunaren gaztetasunagaz? dauko Josek lez Jaungoikuaren legia bijotzaren erdi-erdijan? ¿jaíraituten dautso? ¿neurtuten dauz beragaz egite guztijak? *beati qui ambulat in lege Domini.*

*Gogoratu apurtxu baten eta eskatugura dan mesedia.*

*Iru Aita guria...*

## AZKENENGO OTOITZA

¡O Jose, zeure bizitzan gazterijari ain onbide eder eta goralgarriak emon zeuntsazana! zeure altañun eta eskubide andijagaz ziltzaldi, arisku ta galbide guztijetatik gorde egizuz, txerrenak atzipetu ez dagijezan eta mundu gaiztuak bere lakirijuetan arapau ez dagijezan; Jaunaren bi-dietan zuzen ibilirik emen luñian, jaubetu ditezan of goyan zeuk daukazun aintza ta zorijontasunagaz.

## ZORTZIGAREN EGUNEKO

### GOGARTIA

#### **Jose deuna ezkonduen eredua**

Ezkonduak ikasbide andijak daukez Jose deunagan. Jose deuna Maria Neskutzaren senara izan zan: *Joseph virum Mariæ*, eta senar on bati dagokijon lez, bete eban Mariagazko egin-bear guztijak areta andijagaz: maitatu eban maitasunik andi, garbi eta beroenagaz; lagundu eutson etxeko lan, arazu eta osterantzeko gauza



guztijetan; alikatu eta jantzi eban arotzian irabazten ebazan lauko apurakaz; zaindu eta gorde eban senar on, zintzo ta leyal bati dagokijon erara; beragaz eroan eban Belen'era, Ijitu'ra eta gero Nazaret'era, nun bizi izan zan zorijontasunik andijenian. Etxe atan ez zan inoz ikusi betozko ilunik, ez entzun itz aztunik, ez garatsik, ez eztabaidarik, arpegi alai, izketa gozo eta eztitsuak baño, bijotz bijak egozan bat eginik, eta dana eroien maitasunik eta bakerik gozoenian. Gañera Jose zan, Jesus'en aita ordekoa, eta aita bati dagokijozan egin-bearak bete ebazan ondo baño obeto; bere besoetan erabili eban Jesus umetxua, berak alikatu eta jantzi eban, berak gorde eban Herodes'en ezetsi eta asmo gaiztuetatik eta Arkelao'ren bijozketa dongetatik, eta beti izan zan Jesus'egaz aita arduratsu, maitati, samur, bigun eta gozoa isendi zorijontsua!

Senar-emazteak ¿zelakua da zuen maitasuna? zuen leyaltasuna? ¿zelakua zuen izketa edo berbetia etxian ta seme-alaben aurian? zelakua seme-alabak-ganako ar-

duria? ondo dua dana? ¿ez daukazue kezkarik onetan?

*Gogoratu apurtxu baten eta eskatu gura dogun mesedia.*

*Iru Aita guria...*

## AZKENENGO OTOITZA

¡O Jose ezkondu eta sendi guztijen izpilu argija! zure onbide edeñak ez jaraitu-tiafen, sendi asko okertuta eta galduta dagoz, maitasun eta leyaltasun barik; seme-alaba asko ardi galduen antzera dabiz gurasuak ardurabagak dirialako; erukitu eurakaz, jabon egizuz zeure eskañ edo grazijagaz, biurtu ditezan alkañen maitasun eta leyaltasun zintzora, senañ-emazte on eta guraso arduratsuak izanik, lortu dagijen betiko zorijona.

## BEDERATZIGAREN EGUNEKO G O G A R T I A

**Jose deuna agoliñan dagozanen poza**

Gizonaren ordurik lañijena agoliñako ordua da, ordu ori danoi elduko yaku, ba-

tzuri lenago, bestiai beranduago; ordu atan lařituko gaitu gexotasunak beragaz dakarzan miñ, ala ta estu-aldi guztijakaz; atsekabetuko gauz gauza guztijak itxi beařak eta itxi betiko, arako diru, ondatsun, ainbeste alegiñ, buru auste ta izerdiz piloturikuak, arako jolas, ibilte zoro eta atsegiñ maitekořak, arako aizkide bařu-bařukoak; lařituko gaitue arimako kezka, orduan bizi gogoratuko yakuzanak, lařituko gauz etorkizunak, erijotza ostian itxaroten dogun betiko zorijon edo zoritxařak, eta batez bere, estutu ta lařituko gaitu ordu atan izango doguzan buřuka-aldijak, bada jakiñik gure betiko arerijuk azken ordua dala, eta bertatik juakola gure arimiagaz jaubetutia, edo galtzia, bařiztauko dauz, malmuzkeri ta ziltzarik gogořenak gure kaltez ĩnogana zuzendu gindekez ordu laři atan? ĩnogan ipiñi giñai geure itxaropena? ĩnor izango yaku laguntzale ta gordetzalerik sendoena? ez besterik Jose deuna baño, bera da atsekabetuen sendagařija, lařituen alai ta poztasuna, ta agoliñan dagozanen itxaropen bakařa; orain bere debotuak bagara, ta

biziera on bategaz goralduten badogu,  
bere onoimenak jaraituagaz eta bere go-  
goko gauzak egiñagaz, ziuñ egon geinte-  
kez bere laguntasuna ez jakula paltauko

*Gogoratu apurtxu baten eta eskatu  
gura dogun mesedia.*

*Iru Aita guria...*

### AZKENENGO OTOITZA

¡O Jose luñeko gizonik zoruntsuena!  
aingeruen bizitza erbeste onetan egiñik,  
erijotzarik dontsu, alai ta pozgarijena eu-  
ki zenduana, Jesus eta Maria'ren besoe-  
tan azkenengo arnasia emon zenduana,  
añen erukitu gugaz ordu lañi atan, txere-  
nak (diabruak) atzipetu ez gaizan eta be-  
re ziltza gogoñak azpiratu ez gaizan; ba-  
ketu ordu atan gure bijotzeko kezkak,  
gozotu gure atsekabiak; arindu gure gor-  
putzeko miñak eta bete eroapen sendo  
bategaz gure arimak, Jesus eta Maria'ren  
izenak aoan daruaguzala zeure besoetan  
atseden daigun.

A. M. D. G. et S. J.

DOIBATZ - ZAINDARI JOSEBA DEUNA'REN  
BEDERATZIURENERAKO ABESTIAK (1)

LENENGUA

*Eleiz-Ama deunaren  
zaindari aundija  
entzun eizu zerutik  
gure otoitz-deya  
entzun bai zerutik  
gure otoitz-deya.*

Jesus eta Maria zu il zīñanean  
laguntzen egon ziran, Jose, zure aldean.  
Erdu bai laguntzera zori ain lañijan  
il gaitez an gu bere Jaunaren bakean.

BIGARENA

*Eleiz-Ama deunaren zaindari indartsua  
zaindu gagizuz jañen! Jose erukitsua.*

Bildurik bage dua Pedro'ren ontzija  
zu zaralako bere zaindari aundija;  
betoz ekaitzak, betor itxasoa gose  
ez dabe ondatuko ontzi ori, Jose.

---

(1) Abesti onentzako eresija Arue Abak egiña, Iru-  
ña'n, Arilla & C.<sup>a</sup> renian saltzen da. Gura dabena geuk  
eskuratuko dautsegu.



